

## **DIRU SARRERAK**

Gure diru-sarrerak, batez ere, bezeroek egiten dituzten aktiboen erosketetik eta egiten dugun publizitatetik aterako ditugu. Badakigu enpresa txikia eta sortu berria denez, hasieran kostako zaigula guk espero ditugun etekinak ateratzea. Horregatik, lehen hilabeteetan eta baita urteetan ere, enpresa ezagunago bat baino propaganda gehiago egiten arituko gara, kartelak leku estrategikoetan jartzen eta liburuxkak etxeetako postontzietan sartzten.

Bestalde, badakigu lehenengo urteetan mailegu bat eskatu beharko diogula bankuari, eta horregatik erabaki dugu BBVA n eskatzea, segurtasun handiagoa ematen baitigu arazorik gertatuz gero mailegua itzultzerakoan. Erabaki zaila izan zen, beste banku batzuek ere baldintza onak eskaintzen baitzizkiguten, baina uste dugu BBVA bankua, behar dugun dirua maileguan hartzerakoan, ez zaigula hain zaila egingo.

Gure produktuak, erabiltzen den mugikorraren arabera, prezio desberdina izango du. Hainbat mugikor dauzkagunez, gailu elektronikoen prezio tarte askotarikoa da. Hau da, 500 €-tik 1.000 € baino gorakoak izan daitezke; izan ere, mugikorrek nahiko kostu handia duten enpresa batekin lan egingo dugu.